

**Kontzertinoa**  
**Concertino**

·Aitzol Iturriagoitia

**Lehen biolinak**  
**Violines primeros**

·Waldemar Machmar  
·José Ignacio Aizpiri  
·Inmaculada Aramburo  
·Christine Felden  
·Elisene Alzola  
·Ludwik Hamela  
·Jolanta Jablonska  
·Alexandre Kozouline  
·Maite Menéndez  
·Larraz Oiarzabal  
·Ortiz Oihartzabal  
·Itziar Prieto  
·Maialen Rezabal

**Bigarren biolinak**  
**Violines segundos**

·Xabier Gil (1)  
·María Coma (2)  
·Nathalie Dabadie  
·Irene Echeveste  
·Ainhoa Galvany (2)  
·Anne-Marie Harmat  
·Óscar López  
·Joaquín Melara  
·Iciar Múgica  
·Carlos Ocaña  
·Ricardo Ruiz  
·Igor Torre

**Biolak**  
**Violas**

·Delphine Dupuy (1)  
·Pascal Arnaud (1)  
·Máximo Aroca  
·Natacha Dupuy  
·Ricardo Gil (2)  
·Grzegorz Kawka  
·Elena Martínez de Murguía  
·Arkaitz Martínez  
·Cástor Narvarte  
·Yann Seyrac

**Biontxeloak**  
**Violonchelos**

·Gabriel Mesado (1)  
·Natalia Díaz  
·Jacek Grabe-Zaremba  
·Jon Larraz  
·Flore Lefevre  
·Beatriz Linares  
·Pascale Michaud  
·Ian Swedlund

**Kontrabaxuak**  
**Contrabajos**

·Aleksander Mikolajczyk (1)  
·Victor Bogdanov  
·Andras Cserna  
·Piotr Jelicz  
·Vasile Preotu  
·Pierre Torrent

**Flautak**  
**Flautas**

·Hélène Billard (1)  
·Saida Abdelrahman (2)  
·Carlos Rosat

**Oboeak**  
**Oboes**

·Javier Lecumberri (1)  
·Pascal Laffont  
·Rafael Alonso

**Klarineteak**  
**Clarinetes**

·José Miguel Chirivella (1)  
·Stéphane Langlois  
·Sara Zufiaurre

**Fagotak**  
**Fagotes**

·François Proud (1)  
·Christian García del Campo (2)  
·Tomás Ruti

**Tropak**  
**Trompas**

·Jean-Luc Casteret (1)  
·Salvador Tudela  
·Mario Telenti  
·Karl Pipkin

**Tronpetak**  
**Trompetas**

·Didier Bousquet (1)  
·Daniel Sancasto  
·Jesús Castillo  
·David Lanz (2)

**Tronboiak**  
**Trombones**

·Arnaud Mandoche (1)  
·Javier Almarza  
·Hervé Cahen

**Tuba**

·Óscar Abella (1)

**Tinbalak**  
**Timbales**

·Anthony Lafargue (1)  
·Néstor Morales (2)  
·Javier Peña  
·José Antonio Pérez-Cóccera  
·Jesús Mari Garmendia (2)  
·Igor Arostegi (2)  
·Iraide Ansorena (2)

**Harpa**  
**Arpa**

·Elisabeth Colard (1)  
·Francesca Di Nicola (2)

# Berrelkartzeak

## Reencuentros

### 14/15

# 08

Martxoak **20-21**  
Marzo  
20:00 h.

<sup>(1)</sup> Bakarlaria/Solista

<sup>(2)</sup> Lankidea/Colaborador

**Hurrengo**  
**Abonu kontzertua**  
Próximo concierto  
de Abono

**27/30**  
Apirila/Abril  
20:00

**Atzoko eta gaurko**  
**sinfoniagileak**  
**Sinfonistas de ayer**  
**y hoy**



## Gaurko kontzertua El concierto de hoy

Conciertos nº 2818/2819. Kontzertuak

### Sugarretatik berpiztu

José María Usandizagaren heriotzaren mendeurrenean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak haren erreperitorioan ezinbesteko den *La Llama* opera berrestreinatuko du kontzertu bertsioan. Berrestreinatze hau partituraren edizio-lan eskerga burutu ostean egingo da. Orkestraren eskariz, Juan José Ocónek berrikusketa kritikoa egin du eta bera izango da, gainera, kontzertua zuzenduko duena. Opera honen berreskuratzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren lankidetzak ahalbidetu du.


### Resurgir de las llamas

En el centenario de la muerte de José María Usandizaga, la Orquesta Sinfónica de Euskadi reestrena en versión concierto su ópera *La Llama*, obra fundamental del repertorio del compositor donostiarra. Este reestreno es la culminación de una intensa labor de edición de la partitura, una revisión crítica que, por encargo de la propia Orquesta, ha realizado Juan José Ocón, quien además dirigirá el concierto. La recuperación de esta ópera ha sido posible gracias a la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián.



Berrestreinaldi honen harira, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek, sortu zeneko 250. urteurrena ospatzen den honetan, bazkide kolektibo izendatuko du Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

En el contexto de este reestreno, la Orquesta Sinfónica de Euskadi será nombrada miembro colectivo de la Sociedad Bascongada de Amigos del País, que este año conmemora el 250 aniversario de su fundación.



### Euskadiko Orkestra Sinfonikoa | Orquesta Sinfónica de Euskadi

Miramón Pasealekua 124, 20014 Donostia / San Sebastián.

Tel.: 943 01 32 32 / Fax: 943 30 83 24

[www.euskadikoorkestra.eus](http://www.euskadikoorkestra.eus)

[www.facebook.com/EuskadikoOrkestra](https://www.facebook.com/EuskadikoOrkestra) | [www.twitter.com/euskadiorkestra](https://www.twitter.com/euskadiorkestra)



**Juan José Ocón**  
zuzendaria/director

**Sabina Puértolas**  
Tamar

**Mikeldi Atxalandabaso**  
Adrián

**Damián del Castillo**  
El Sultán

**Miren Urbietta Vega**  
narratzailea/narradora

**Elena Barbé**  
Lisa/El espíritu del agua

**Fernando Latorre**  
El Oráculo/La Muerte

**Maite Maruri**  
Aisa

**Xabier Anduaga**  
El Carcelero

**Coral Andra Mari Abesbatza**  
(José Manuel Tife, zuz./dtor.)

### Egitaraua / Programa

## La Llama [85']

**José María Usandizaga (1887-1915)**

**Libreto/libreto: María Lejárraga** (berrikusketa/visión: Manuel Cabrera)

Opera kontzertu bertsioan. Euskadiko Orkestraren eskariz, Juan José Ocónek burututako berrikusketa kritikoa. Edizioa: Ana Huarte. EOSak lehen aldiz interpretaturiko obra.

Ópera en versión concierto. Revisión crítica realizada por Juan José Ocón por encargo de la Orquesta de Euskadi. Edición: Ana Huarte. Obra interpretada por la OSE por primera vez.

#### 1. Zatia/Acto 1º

Sarrera/Prólogo

1. Eszena/Escena 1ª
2. Eszena/Escena 2ª

#### 2. Zatia/Acto 2º

Sarrera/Prólogo

Eszena bakarra/Escena única

Etenaldia/Pausa

#### 3. Zatia/Acto 3º

1. Koadroa/Cuadro 1º  
Interludioa/Interludio
2. Koadroa/Cuadro 2º

Obra honen edizioa ahalbidetu duten lankideak:  
La edición de esta obra ha sido posible gracias a la colaboración de:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



**E**uskadiko Orkestra Sinfonikoak José María Usandizaga (1887-1915) gogoratu nahi izan du bere heriotzaren mendeurrenean eta horretarako hil ondoren estreinatu zen *La Llama* bere lanaren berrikuspen kritikoa, emankizuna eta grabazioa eskatu dizkit. Egilea 1915ean gazterik hil ondoren oso gutxitan antzeztu zen: Donostian eta Madrilen 1918an eta Bartzelonan 1932an. Ekitaldi horien kronikei esker da jakina *La Llama* izugarrizko arrakasta izan zuela, obra hau laudatu eta musikagile handi honen eszenalanik garrantzitsuentzat jotzen baitute. Inork ez dakien arrazoengatik, orain arte ez da beste inoiz antzeztu edo berrikusi. Ohorea da niretzat sakontasunez ezagutu eta berriz ere eszenaratzeko aukera izateko.

Opera honen libretoa Gregorio Martínez Sierrarena zela uste izan zen hasiera batean, baina ondorengo ikerlanei esker dakigu María Lejárraga emaztea izan zela horren egiazko egilea, eta baita *Las Golondrinas* zarzuelarena eta garaiko musikagile handien beste hainbat libretorena ere.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak argi zeukan ekitaldiak kontzertu formatua izan behar zuela eta, ondorioz, jatorrizko lan osoa sakon

**L**a Orquesta Sinfónica de Euskadi ha querido recordar a José María Usandizaga (1887-1915) en el centenario de su fallecimiento encargándome la revisión crítica, representación y grabación de su obra póstuma *La Llama*, de la que pocas representaciones se hicieron tras su temprano fallecimiento en 1915: San Sebastián y Madrid en 1918 y Barcelona en 1932. Se conoce la rotundidad del éxito de *La Llama* por las crónicas de estas representaciones, que la alaban y la consideran la culminación de la labor escénica de este gran compositor. Por razones desconocidas, no ha vuelto a representarse ni a revisarse hasta la fecha de hoy. Es un honor para mí haber tenido la oportunidad de conocerla en profundidad y llevarla nuevamente a los escenarios.

El libreto de esta ópera fue atribuido inicialmente a Gregorio Martínez Sierra, pero posteriores investigaciones han demostrado que su mujer, María Lejárraga, era la verdadera autora del mismo, así como del de *Las Golondrinas* y otros tantos libretos de grandes compositores de la época.

La Orquesta Sinfónica de Euskadi tenía claro que la representación debía ser en formato concierto, lo cual me ha llevado a estudiar la

aztertu behar izan dut ekitaldi bakoitzeko zatirik adierazgarrienak aukeratu ahal izateko. Orkestrazioa nabarmendu behar da: bikaina, modernoa eta zoragarria, Usandizagaren talentu handia erakusten duena. Talentu horri esker, erliebe eta kolorez betetako paisaiak eraikitzen zituen instrumentuen konbinazioen bitartez, melodiarik sinpleenez abiatuta eta bere nortasun lasai, malenkoniatsu eta goxoaz ukituz. Horren adibide bat dugu Uraren espirituaren kantuaurreko orkestraurune ederra, zeinetan euskal frantses estilo nabarmeneko melodia zoragarria erabiltzen duen. Parisen egon zenean harmonia inpresionistari buruzko ezagutzez jabetu zen eta bere lanean ez da zaila Debussy eta Raveli zien mirespena antzematea, baina baita Puccini, Mussorgsky eta Rimsky-Korsakovengandik gertuko zaletasun instrumentala ere, zeinak lan honi indar eta bizitasun ikaragarriak eranstean baitizkie.



Baina ez zuen bakarrik talentu musikal handia, bere antzerki-sena ere oso nabarmena zen, bigarren ekitaldiko antzerki-efektu originalek erakusten duten bezala: presoen koroak eta koro arabiarrak euskal melodia ezagun bat abesten dute, ereserkia baillitza, edo lanaren amaiera, zeinetan bi koroek elkarrekin abesten duten heriotzaren kantua, bere patuaren aierua, agian. Bikaina da lan honen tratamendu koral, orkestrarekin hiru ahots eta gehiagorekin egiten dituen kontrapuntuengatik eta *parlato* erako elkarrizketa koralengatik, azken hori oso

obra original completa a fondo para seleccionar de ella los fragmentos más significativos de cada acto. Es destacable la orquestación: espléndida, moderna y admirable, que denota el gran talento que poseía Usandizaga. Este talento le permitía construir, a través de sus combinaciones instrumentales, pasajes llenos de relieve y color partiendo de las más simples melodías, impregnándolas de su personalidad serena, melancólica y dulce. Valga como ejemplo de esto un hermoso momento orquestal que precede al canto del Espíritu del agua, en el que utiliza una preciosa melodía de marcado estilo vasco-francés. Su estancia en París le proporcionó unos conocimientos sobre armonía impresionista y no es difícil entrever en su obra cierta admiración por Debussy y Ravel, pero es su inclinación instrumental, cercana a Puccini, Mussorgsky y Rimsky-Korsakov la que dota a esta obra una fuerza e intensidad enormes.

Pero no solo poseía un gran talento musical. Era también su instinto teatral muy destacable, como demuestran sus originales efectos teatrales del final del segundo acto, con el coro de prisioneros y el coro árabe que entonan, a modo de himno, una conocida melodía vasca, así como el final de la obra, en el que dos coros cantan al unísono el tema de la muerte, presentimiento tal vez de su propio destino. Es muy brillante el tratamiento coral de esta obra por sus contrapuntos a tres y más voces con la orquesta y sus diálogos corales en forma de parlato, muy novedosos y de gran efecto teatral con los que José María Usandizaga consigue una gran espectacularidad. No puedo olvidar mencionar su acierto en la escritura de las voces solistas en las arias, dúos y tercetos: es tan adecuado a sus voces que permite a los cantantes disfrutar de la voz y lucir su técnica haciendo llegar al público sus cualidades de manera natural.

Para llevar a cabo esta revisión de *La Llama* he partido del manuscrito que el malogrado maestro dejó. En él he encontrado pequeños problemas de la partitura original, que gracias a las nuevas tecnologías he podido corregir, facilitando enormemente la

berritzailea eta antzerkian efektu handia izanda. Horrekin guztiarekin ikusgarritasun handia lortu zuen José María Usandizagak. Ezin dut aipatu gabe utzi aria, duo eta tertzetoe tako bakarlarie n ahotsen idazketan bete-bete an asmatu zuela: hain da egokia ahots horietarako, ezen abeslari ei beren ahotsoz gozatzeko eta beren teknika nabarmentzeko aukera ematen baitie, publikoari beren dohainak naturaltasunez helaraziz.

*La Llama* operaren berrikuspen hau egiteko, zorigaiztoko maisuak utzitako eskuizkributik abiatu naiz. Bertan, jatorrizko partituraren arazo txikiak aurkitu arren, teknologia berriei esker zuzendu ahal izan ditut, lanaren prestaketa izugarri erraztuz eta edozein auditorioko programazioan barne hartzea ahalbidetuz. Formatu modernoan editatu ahal izateko, maisuaren nota bakoitza berrikusteak berarengatik eta bere lanetik ikasten lagundu dit, Lejárragaren libretoari musika jartzeko erabilitako talentu hori gertutik sentituz. Hain goiz hil ezean zein lan mirezgarri konposatuko zituen jakin gabe geratuko gara.

Seguru asko José María Usandizagaren sorkuntza-lanik onena izango dena berreskuratze ko interesa eskertu behar zaio Euskadiko Orkestra Sinfonikoari, horren bitartez musikagilea bera hobeto ezagutzeko aukera eman baitigu. Bada, garaiko kritikari batek idatzi zuen bezala, "*La Llamaren* musika ez da bere lan hutsa: bera da".

preparación de la obra, lo que permite su inclusión en la programación de cualquier auditorio. Revisar cada nota del maestro para editarla en un formato moderno me ha ayudado a aprender de él y de su obra, sintiendo de cerca ese talento con el que puso música al libreto de Lejárraga. Nos quedaremos sin saber qué otras maravillas más hubiera podido componer si no hubiera fallecido tan pronto.



Hay que agradecer a la Orquesta Sinfónica de Euskadi el interés por recuperar la que, probablemente, sea la mejor de las creaciones de José María Usandizaga y, a través de ella, la posibilidad de conocer mejor al propio compositor pues, como un crítico de la época escribió, "la música de *La Llama* no es solo su obra: es él".

**TEATRO VICTORIA EUGENIA**  
Teléfono 16-66

**Gran Acontecimiento Artístico**

**HOMENAJE** al malogrado y eminente compositor donostiarra  
**JOSÉ MARÍA USANDIZAGA**

TRES UNICAS REPRESENTACIONES  
los días: Miércoles 30 de Enero de 1918, a las 9 ½ de la noche, en función de  
**GRAN GALA**  
Viernes 1.º de Febrero de 1918, a las 5 de la tarde.  
Domingo 3 de Febrero de 1918, a las 4 de la tarde.

**Estreno** del drama lírico en tres actos, los dos primeros con sus prólogos y el tercero dividido en dos cuadros, música de José M.ª Usandizaga y letra de G. Martínez Sierra,

**LA LLAMA**

REPARTO

Tanar.....	Srta. Campiña	Adrián.....	Sr. Canalda
Aisa.....	Sra. Kosta	El Sultán.....	• Jordá
Lisa.....	Srta. Alcaraz	El Oráculo.....	• Massia
El Espíritu del Agua.....	• " "	La Muerte.....	• Martí
La Narradora.....	• Trigueros	El Carcelero.....	• Puiggener

Soldados, mercaderes, cortesanos, visires, odaliscas, vendedoras, negros, prusianos, etc. etc.

Una sección del Coro Mixto del Ouzón Donostiarra, cantará los coros de prisioneros y odaliscas.

**72 Profesores de Orquesta 72**

Dirigirá la Orquesta el Mtro. Cab. Com. **ARTURO BARATTA**  
Director de escena: **LORENZO MALVET**

Asistirá al Estreno el Sr. **MARTÍNEZ SIERRA**

PRECIOS, IMPUESTOS INCLUIDOS

Butaca.....	Ptas. 25	Las demás filas.....	• 7
Palcos y plateas con 8 entradas.....	• 150	Delantera de Paraíso.....	• 7
Proscenios de anfiteatro con 8 entradas.....	• 75	Primera fila.....	• 5
Butaca de anfiteatro.....	• 15	Las demás filas.....	• 3
Primera fila.....	• 10		



“ Aurkitu genuenean hogeita lau urte zituen, baina askoz gazteago ematen zuen. Txikia, goibela, gaixobera eta herren samarra zen. Mundutik isolatuta bizi izandakoa zen, maitasun eta mirespenaz egindako beirazko kanpai baten barruan bezala, berehala konturatu baitzen bere haragi gaixotuaren barruan erretzen zen sugar bikainaz. María Lejárragak, *Las Golondrinas* eta *La Llama* lanen libretoen egileak, leialtasunez gogoratzen zuen José María Usandizaga 1969an, Argentinako erbestealdian, honako hitz hauek idatzi zituenean: “Gure garaiko musikaririk garrantzitsuenekin lan egiteko zortea izan dut nik. [...] Fallarekin, *El amor brujo* eta *El sombrero de tres picos* lanetan; Turinarekin, *Margot*en... Baina inork arrasto sakona utzi bazidan eta orain xehetasun handiagoz gogoratzeko gai izanda, hura José María Usandizaga da”.

*La Llama* 1914ko otsailaren 5ean Madrilgo Circo Price Antzokian arrakasta handiz estreinatutako *Las Golondrinas*en ondorio naturala izan zen. Biziki modernoa, Sorozabalek “Chapík markatutako arte lirikoaren bide egokiak estaltzen zituen

“ Cuando le encontramos tenía veinticuatro años, pero representaba mucho menos edad. Era pequeño, desmedrado, enfermizo, cojeaba levemente. Había vivido aislado del mundo como dentro de un fanal hecho de cariño y admiración porque la familia, contra lo que acostumbra suceder, se había dado cuenta inmediatamente de la llama genial que ardía dentro de su carne enferma”. María Lejárraga, autora de los libretos de *Las Golondrinas* y de *La Llama*, recordaba vívidamente a José María Usandizaga cuando anotó estas palabras en 1969, desde su exilio argentino. “Yo he tenido la suerte de haber colaborado con los músicos más importantes de nuestra época. [...] Con Falla en *El amor brujo* y *El sombrero de tres picos*; con Turina, en *Margot*... pero si alguno dejó huella profunda y ahora soy capaz de recordarle con más precisos detalles, es José María Usandizaga”.

*La Llama* fue consecuencia natural de *Las Golondrinas*, estrenada con fenomenal éxito el 5 de febrero de 1914 en el Teatro Circo Price de Madrid. Rabiosamente moderna, alabada por Sorozábal como “un vendaval que barría la hojarasca que cubría los buenos



orbela eramaten zuen haizetea” bezala laudatuta, zeinarekin Usandizaga egun batetik bestera ospetsu egin eta zarzuelaren enpresaburuak beste lan bat ekoizteko jartzaren hasi zitzaizkion. Usandizaga, 27 urtez ospetsua izaki, Igantzira joan zen, Nafarroara, baserri lasai batera Ana María ahizpa eta Manuel anaiarekin. “Etxean eman zuen ia urte osoa gizakumeak”, gogoratzen zuen azkenak; “eguerdian jaiki [bere gaixotasunagatik ohean konposatzen zuen], bazkalondoan ohera itzuli eta buru-belarri lan egin zuen *La Llama*”. Ez zuen bakarrik buru-belarri egin, baita modu kaotikoan ere, bere libreto-egilea Madrilén zegoelako eta arazo dramatikoak gutun bidez konpondu behar zituelako. “Egunero zerbait ezberdina eskatzen zidan” esatera heldu zen Lejárraga. “Gaiaren inguruan berehala jarri ginenez ados baina egoeretan aldatu egiten zen, urratsez urrats goratu nahian. Horregatik, *La Llama* gehiegizkoa da. Liburuan denetarik egotea nahi zuen Usandizagak: maitasun atsekabetu eta ezinezkoa; malenkonia, ilusio gaztea, kutsu bukolikoa, krudelkeria, gerra, ziegak, presoan segizio penagarriak, estutasuna, itxaropena, handikeria, nahigabea, heriotza...”.

camino del arte lírico marcados por Chapí”, con ella Usandizaga se vio célebre de la noche a la mañana y los empresarios de zarzuela comenzaron a acosarle para que produjera una nueva obra. Usandizaga, quien a sus 27 años gustaba del reconocimiento, se trasladó a Yanci, en Navarra, a un tranquilo caserío junto a su hermana Ana María y su hermano Manuel. “El hombre se pasó casi todo el año en la casa”, recordaría este último; “se levantaba al mediodía [componía en la cama debido a su enfermedad], volvía a la cama después de comer y trabajó intensamente en *La Llama*”. No solo lo hizo de forma intensa, sino también caótica, al estar su libretista en Madrid y tener que solventar los problemas dramáticos por vía epistolar. “Cada día me pedía una cosa diferente”, llegó a afirmar Lejárraga. “En el asunto nos pusimos en seguida de acuerdo pero en las situaciones variaba, queriendo engrandecerlas a cada paso. Por eso, *La Llama* es superabundante. Usandizaga quería que en el libro hubiese de todo: amor contrariado e imposible; añoranzas, ilusión juvenil, fragancia bucólica, crueldad, guerra, calabozos, lamentables cortejos de prisioneros, angustia, esperanza, altivez, desolación, muerte...”.



Hiru ekitalditan egituratuta, *La Llamak* Tamar eta Adrianen amodiozko istorioa kontatzen du, Turkiarrekiko gerra garaian. Lehenengo ekitaldian Adrian atxilotuko dute esklabo bihurtutako bere maitea bisitatzen zuenean. Tamarrek dantza eta kantu egingo du Sultanarentzat bigarren ekitaldian, hura maitemindu eta Adrianengana hurbildu ahal izateko. Sultana bere xarmez liluratu eta jauregira eramateko agindua emango du. Hirugarren ekitaldian Aisak, odaliska batek, Adrian espetxetik atera eta bere maitasunaren truke eskainiko dio askatasuna. Adrianek eskaintza errefusatuko du, baina Tamar Sultanarekin lakrikunkeriatan ikustean eskaintza onartuko du. Tamarrek maiteari salbatzeko azpikeria azaltzea lortzen duenean, bi emakumeen arteko liskar batek zaurituta eta hil zorian utziko du Adrian. Sultana oihuak entzun eta bertaraten denean Aisak gezurra esango dio, hots, Tamarrekin ihes egiteko asmoa zuen preso hil behar izan duela. Eztabaida bortitz baten ondoren, Sultanak Tamar hiltzeko aginduko du eta neskak itsasora botako du bere burua.

“Ekialdeko legenda plastiko eta bikain” honek, Matilde Muñozek 1918an egilea hil ondoren estreinatu zenean deskribatu zuen

Estructurada en tres actos, *La Llama* narra la historia de amor de Tamar y Adrián en tiempos de guerra con los Turcos. En el primer acto Adrián es detenido cuando visita a su amada, que es convertida en esclava. Tamar baila y canta para el Sultán en el segundo acto, con el fin de enamorarlo y acercarse así a Adrián. El Sultán cae rendido a sus encantos y ordena llevarla a su palacio. En el tercer acto Adrián es liberado de la cárcel por Aisa, una odalisca, quien le ofrece la libertad a cambio de su amor. Adrián rechaza la oferta, pero al presenciar cómo Tamar coquetea con el Sultán acepta finalmente el ofrecimiento. Cuando Tamar logra explicar a su enamorado el artificio para salvarle, una disputa entre las dos mujeres deja herido de muerte a Adrián. El Sultán acude alertado por los gritos y Aisa miente, afirmando que se ha visto obligada a matar al prisionero que pretendía huir con Tamar. Tras una violenta disputa, el Sultán ordena la muerte de Tamar, quien se arroja al mar.

Esta “leyenda oriental plástica y brillante”, como la describiría Matilde Muñoz tras su estreno póstumo en 1918, agotaría las escasas fuerzas vitales de Usandizaga, que fue trasladado a Donostia y falleció por tuberculosis en octubre de 1915, con la tinta de la partitura



bezala, Usandizagaren bizi-indar urriak ahitu eta Donostiara eraman zuten, non 1915eko urrian hil baitzen tuberkulosiak jota, partiturako tinta oraindik heze zegoela. Ramón Usandizagak, anaiaren konposatzeko estiloa ondo ezagutzen zuenak, amaitu gabe utzi zituen hainbat atal osatu zituen.

aun húmeda. Ramón Usandizaga, buen conocedor del estilo compositivo de su hermano, completó algunas secciones que habían quedado inconclusas.

**Mikel Chamizo**

Konpositorea eta musika kritikoa  
Compositor y crítico musical

#### ARGAZKIAK/FOTOGRAFÍAS

Iturria/fuente: ERESBIL, Musikaren Euskal Artxiboa

1. José M<sup>a</sup> Usandizaga Garibai kaleko bere estudioan, ca. 1914 / José M<sup>a</sup> Usandizaga en su estudio de la calle Garibay, ca. 1914.
2. José María Usandizaga Pariseko Schola Cantorum delakoan, ca. 1902 / José María Usandizaga en la Schola Cantorum de Paris, ca. 1902.
3. José María Usandizagaren erretratua / Retrato de José María Usandizaga.
4. *La Llama* operaren esku egitaraua / Programa de *La Llama*.
5. José M<sup>a</sup> Usandizaga Garibai kaleko bere estudioan, ca. 1914 / José M<sup>a</sup> Usandizaga en su estudio de la calle Garibay, ca. 1914.
6. Igantziko etxea. José M<sup>a</sup> Usandizagak bertan idatzi zuen *La Llama* / Casa de Yanci, donde José M<sup>a</sup> Usandizaga compuso *La Llama*.
7. *La Llama* operako interpretatzaileak, 1918 / Intérpretes de la ópera *La Llama*, 1918.
8. Orkestra bat Victoria Eugenia Antzokiko sarreran, konpositorearen omenezko hileta-segizioan / Orquesta a las puertas del Teatro Victoria Eugenia durante el cortejo fúnebre del compositor.